

IRAGARKI OHOLA



GORDAILUEN BERME FUNTSA

Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsei buruzko 2606/1996 Errege Dekretuaren –abenduaren 20koa– ondorioei begira, aditzera ematen dizugu Deutsche Bank, S.A. Española Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsari atxikirik dagoela; honako hauek dira horren egoitzaren datuak: C/ José Ortega y Gasset, 22 - 5ª planta, 28006 Madrid; emaila: fogade@fgd.es, webgunea: www.fgd.es, telefonoa: +34 91 431 66 45.

Diru-gordailu bermatuek 100.000 euroko muga dute (edo, beste dibisa batean izendatutako gordailuak izanez gero, horren baliokidea abenduaren 20ko 2606/1996 Errege Dekretuaren 8. artikuluan aipatutako gertaeraren bat jazotzen den eguneko truke-tasak aplikatuta, edo aurreko egunekoak, jaieguna balitz) gordailugile bakoitzeko, eta edozein dela ere aurreko muga, betiere 100.000 euroraino gehienez ere entitatearen esku utzitako balore-gordailu eta finantza-tresna bermatuen truke. Bi muga horiek pertsona natural edo juridikoari aplikatzekoak dira bi kasuetan, edozein dela ere hura titular gisa agertzen den diru-gordailu bermatuen edo balore eta finantza-tresna bermatuen kopurua eta mota, hori guztia aipatutako Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta harekin bat datozenetan ezarritako zehaztapenen arabera.

Jarraian 2606/1996 Errege Dekretuaren 4. artikulua transkribatzen da, zeinak bermearen muga ezartzen baitu, xeheki azalduta zein diren estalduraren barnean edo kanpoan gelditzen diren diru-gordailuak eta baloreak zein finantza-tresnak:

“4. artikulua. Bermearen muga

1. Errege Dekretu horren ondorioei begira, kontuan mantentzen diren saldo hartzekodunak izango dira gordailu onargarriak, trafiko-eragiketengatik aldi baterako egoeretatik datozen funtsak barne eta 4. atalean aipatutako gordailuak kanpo, aplikatzekoak diren legezko eta kontratuzko baldintzetan entitateak itzuli behar dituen horiek, edozein monetatan izendatuta izanik ere, eta, betiere, baldin eta Espainian edo Europar Batasuneko beste Estaturen batean eratuta badaude, epe finkorako gordailuak eta aurrezki gordailuak barnean direla. Gordailu bermatutzat joko dira 7. artikuluan ezarritako estaldura-mailak gainditzen ez dituzten gordailuen zatiak.

Aldi baterako egoeretatik datozen funtsen artean –aurreko paragrafoan aipatu dira horiek–, onartuko dira, edozein kasutan, inbertsio-zerbitzuren bat egiteko erakundearen esku utzitako diru-baliabideak, Balore Merkatuko Legearen testu bateginaren arabera, edo zerbitzu edo jarduera horiek ematetik datozenak.

Errege Dekretu honen ondorioei begira, ez dira gordailutzat joko honako baldintza hauetakoren bat duten saldo hartzekodunak:

a) Haien existentzia probatzeko modu bakarra hau bada: urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Balore Merkatuko Legearen testu bateginaren 2. artikuluan aurreikusitako finantza-tresnetako baten bidez. Ez dira, beraz, gordailutzat joko aktiboen aldi baterako lagapenak, ezta eramaile-gordailuko ziurtagiriak ere.

b) Printzipala bere balio nominalean itzultzeko modukoa ez bada.

c) Printzipala bere balio nominalean itzultzeko modukoa bada, baina kreditu-erakundearen edo hirugarren baten berme edo akordio berezi batez soilik.

IRAGARKI OHOLA



2. Errege Dekretu honen ondorioei begira, balore bermatutzat joko dira Balore Merkatuko Legearen 2. artikuluan aurreikusitako balore negoziagarriak eta finantza-tresnak, kreditu-erakundearen esku utzi badira Espainian edo beste edozein herrialdeetan, gordailutzeko edo erregistratzeko edo inbertsio-zerbitzuren bat egiteko. Balore bermatuen artean sartuko dira, edozein kasutan, aldi baterako laga direnak eta erakunde lagatzailean idatzita edo erregistratuta jarraitzen dutenak.

Inbertsio-zerbitzuak eta jarduera osagarriak egiteari begira kreditu erakundearen esku utzitako balore eta finantza-tresnek ez dute bermerik izango, baldin eta haiek egitekoak badira indarrean dagoen legeriaren arabera paradisu fiskal gisa zehaztuta dauden herrialdeetan edo balore-merkatuen organo gainbegiratzailerik ez duen herrialde edo lurralde batean, edo, organo hori izanik ere, ez badu informazio-trukerik egiten Balore Merkatuko Batzorde Nazionalarekin.

Ekonomia Ministerioak zehaztuko ditu, Balore Merkatuko Batzorde Nazionalak hala eskatuta, zein diren aipatutako egoera horretan dauden herrialde edo lurraldeak.

Bestalde, ez dute bermerik izango Europar Batasunetik kanpo dauden Espainiako kreditu erakundeen bulegoen eskuetan utzitako balore eta finantza-tresnek, baldin eta herrialde horiek espainiarren baliokide diren inbertsiogileen aldeko indemnitzazio-sistema nazionalak badituzte.

3. Aurreko ataletan inbertsio-zerbitzuetarako edo gordailu-jardueretarako edo baloreen erregistrorako aipatutako bermeari dagokionez, funtsek estali egingo dute kaltetutako inbertsiogileari dagozkion baloreen edo tresnen ez-itzultzea, baldin eta kaltea 2606/1996 Errege Dekretuaren 8.2 artikuluan aurreikusitako egoeren ondorio bada. Kasu horretan, inoiz ez da estaliko inbertsioaren balio-galerarik edo edozein kreditu-arrisku.

4. Errege Dekretu horren ondorioei begira, ez da gordailu onargarritzat joko, eta, ondorioz, Kreditu Erakundeen Gordailuen Berme Funtzaren estalduratik kanpo egongo dira, honako hauek:

a) Beste kreditu-entitate batzuek beren kontura eta izenean egindako gordailuak, baita ondoko subjektu eta finantza-entitate hauek egindakoak ere:

1. Balore-sozietateak eta -agentziak.

2. Aseguru-entitateak.

3. Balore-inbertsioko sozietateak.

4. Inbertsio kolektiboko erakundeetako kudeaketa-sozietateak, pentsio-funts, titulizazio-funts eta arrisku-kapitaleko kudeaketa-sozietateak, baita kudeaketa-entitateetako gordailuak ere.

5. Zorroak kudeatzen dituzten sozietateak eta finantza-aholkularitza ematen duten sozietateak.

6. Arrisku-kapitaleko sozietateak eta dagozkien kudeaketa-sozietateak.

7. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 575/2013 zenbakiko Erregelamenduaren (EB) -2013ko ekainaren 26koa- 4.1.26) artikuluan definitutako beste edozein finantza-erakunde.

b) Entitatearen fondo propioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 575/2013 Erregelamenduaren -2013ko ekainaren 26koa- 4.1.118 artikulua definizioaren arabera, fondo propio gisa neurtutako zenbatekoa edozein izanik ere.

c) Kreditu-entitateak jaulkitako zor-balio adierazgarriak, baita ordaindukoak eta efektu negoziagarriak ere.

d) Titularra identifikatuta ez dauden gordailuak, Kapitalak Zuritzea eta Terrorismoaren Finantzaketa Prebenitzeari buruzko apirilaren 28ko 10/2010 Legean aurreikusitakoa betez, edo kapitalak zuritzeagatik zigor-epaia jaso duten eragiketetatik datozenak.

IRAGARKI OHOLA



e) Administrazio Publikoek entitatean eraturako gordailuak, 500.000 euroko edo hortik beherako urteko aurrekontua duten toki entitateek eraturako izan ezik.

Ez dira balore bermatuztat joko, Errege Dekretu honen ondorioei begira, aurreko a) eta e) paragrafoetan aipaturako pertsonak titular dituztenak.

5. Halaber, eta alde batera utzi gabe aintzat hartuak izan daitezkeela ekarpenak zenbatzeko, zenbateko bermatuak ordaindu beharrak ez ditu barne hartuko jarraian adierazitako moduan eratu direnak:

a) Indarrean dauden xedapenak urratu dituztenak, bereziki, kapitalak zurrizteko eragiketen ondorioz zigor-epaia jaso duten eragiketetan sortutakoak.

b) Erakundearen egoera larriagotzen lagundu duten finantza-baldintzak pertsonalki lortu dituzten bezeroek eraturakoak, baldin eta epai irmo batek zehaztu badu egoera hori.

c) Aurreko atalean eta atal honetan azaldutakoaren ondorioz baztertuak izan diren gordailugileen izenean diharduten pertsonak, edo aurreko a) eta b) paragrafoetan aipaturakoekin batera dihardutenak.

6. Errege Dekretu honen 9.1 artikuluan zehaztutako epeak gorabehera, bertan behera utz daiteke kalte-ordainen ordainketa baldin eta, Batzorde Kudeatzailearen iritziz, susmoa egon badaiteke gordailugileren batek erlazorik edo partaidetzarik izan ote duen indemnitzatzeko betebeharra eragin duten arrazoiekin, harik eta, alderdi batek hala eskatuta, epai bidez argitu arte halako erlazio edo partaidetzarik ez dela izan. Funtsek ahalmen bera izango dute, gordailugile bat edo gordailu baten gainean eskubidea edo interesa duen beste edozein pertsona auzipetua izan bada, edo kapitalak zurriztearekin zerikusia duten delituengatik ahozko epaiketa irekitzea erabaki bada haren aurka, baldin eta Prozedura Kriminalaren Legearen IV. Liburuko III. Tituluan arautzen den prozedura laburtuari hasiera eman bazaio eta prozedura bukatu arte.

Atal horretan eta aurrekoan xedatutakoa ezarriko zaie, era berean, balore bermatuen titularrei”.

Gordailugileak edo inbertsiogileak hala eskatzen badu, zenbateko bermatua ordaintzeko behar diren baldintzen berri emango zaio, bai eta ordaintzeko behar diren formalitateen gaineko informazioa ere.

Kontu korrante, epe finkorako gordailu eta aurrezki gordailuei buruzko zenbatekoen gaineko informazioa emateko, erantsita dago gordailugilearentzako informazio-inprimakia.

INFORMAZIO-INPRIMAKIA GORDAILUGILEENTZAT
(Ageriko kontuak, epe finkoko gordailuak eta aurrezki-gordailuak)

Gordailuen estaldurari buruzko oinarrizko informazioa	
Deutsche Bank, S.A. Española entitatean eratutako gordailuak Kreditu Entitateen bermatzen ditu	Kreditu Entitateen Gordailuak Bermatzeko Funtza
Estalduraren muga	100.000 euro gordailugileko eta kreditu-entitateko edo, beste dibisa batean izendatutako gordailuak badira, horren baliokidea, abenduaren 20ko 2606/1996 Errege Dekretuaren 8.1 artikuluan aipatutako gertaeretako bat jazotzen den egunean edo, jaieguna balitz, aurreko egun baliodunean indarrean zeuden truke-tasak aplikatuta. (2)
Gordailu gehiago baduzu kreditu-entitate berean:	entitate bereko gordailu guztiak batu, eta 100.000 euroko muga (edo horren baliokidea, beste dibisa batean izendatutako gordailuak badira, goian aipatutako truke-tasak aplikatuta) ezarriko zaio guztizkoari. (2)
Kontua beste pertsona bat(zu)ekin baduzu partaidetzan:	gordailugile bakoitzeko aplikatuko da 100.000 euroko muga (beste dibisa batean izendatutako gordailuak badira, horren baliokidea, goian aipatutako truke-tasak aplikatuta) (3).
Itzulketa-aldia kreditu-entitatea konkurtsoan sartu bada:	<ul style="list-style-type: none"> - 20 egun baliodun, 2018ko abenduaren 31ra arte; - 15 egun baliodun, 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra arte; - 10 egun baliodun, 2021eko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra arte; - 7 egun baliodun, 2023ko abenduaren 31tik aurrera;

Itzulketa egingo den moneta:	Euroa
Harremanetarako:	<p>Kreditu Entitateen Gordailuak Bermatzeko Funtza –</p> <p>C/. Ortega y Gasset, 22 5ª planta / 28006 Madrid / Telefonoa: (34) 91 431 66 45 / Fax: (34) 91 575 57 28 /</p> <p>Helbide elektronikoa: fogade@fgd.es</p>
Informazio zehatzagorako, jo ezazu webgune honetara	http://www.fgd.es
Gordailugile aitortzea	
<p>Informazio gehigarria</p> <p>(2) Babesaren muga orokorra</p> <p>Kreditu-entitateak ezingo balitu bete finantza-obligazioak eta, ondorioz, ezinezkoa izango balitz gordailua jasotzea, gordailuak bermatzeko sistema batek itzuliko die dirua gordailugileei. Itzulketaren gehieneko muga 100.000 euro da (edo, beste dibisa batean izendatutako gordailuak badira, horren baliokidea, goian aipatutako truke-tasak aplikatuta) kreditu-entitate bakoitzeko. Horrek esan nahi du kreditu-entitate berean eraturako gordailu guztiak batzen direla estaldura-maila zehazteko. Adibidez, gordailugile batek 90.000 euro izango balitu aurrezki-kontu batean eta 20.000 euro kontu korrante batean, 100.000 euro soilik itzuliko zaizkio.</p> <p>Kreditu-entitate batek merkataritza-izendapen desberdinekin jardungo balu ere, metodo bera aplikatuko da. Horrek esan nahi du 100.000 euroko bermea dutela merkataritza-izendapen batean edo gehiagotan eraturako gordailu guztiek.</p> <p>(3) Babesaren muga partaidetzako kontuetarako.</p> <p>Partaidetzako kontuei dagokienez, gordailugile bakoitzeko aplikatuko da 100.000 euroko muga.</p> <p>Dena den, bi pertsonak edo gehiagok (sozietate, elkarte edo antzeko talde bateko kide edo bazkide gisa, nortasun juridikorik gabe) badituzte eskubideak kontu bateko gordailuen gainean, gordailugile bakar batek egin balitu bezala batu eta joko dira gordailuak aipatu muga (100.000 euro) kalkulatzeko (edo, beste dibisa batean izendatutako gordailuak badira, horren baliokidea, goian aipatutako truke-tasak aplikatuta)</p>	

16/2011 Errege Lege Dekretuaren 10.1 artikuluan xedatutako kasu hauetan, gordailuak 100.000 eurotik gora daude bermatuta (edo, beste dibisa batean izendatutako gordailuen kasuan, haien baliokidetasuna, aipatutako kanbio-tasak aplikatuta): Honako gordailu hauek bermatuta egongo dira, haien zenbatekoa gorabehera, hiru hilabetez, zenbatekoa ordaintzen denetik edo gordailu horiek legez transferitzeko modukoak izatera igarotzen direnetik aurrera:

A) Bizitegi-ondasun higiezin pribatuekin egindako transakzioetatik datozenak; B) gordailugileak modu puntualean jasotako ordainketetatik eratorritakoak, ezkontza, dibortzio, erretiro, kaleratze, baliaezintasun edo heriotzarekin lotuta badaude; Eta C) aseguru-prestazioen ordainketan edo delitu edo errakuntza judizial baten ondoriozko kalteengatiko kalte-ordaineen oinarrituta daudenak.

Informazio gehiago Kreditu Erakundearen Gordailuak Bermatzeko Funtsaren www.fgd.es webgunean eskura daiteke.

(4) Itzulketa.

Gordailuak bermatzeko sistema erantzulea:

Kreditu Entitateen Gordailuak Bermatzeko Funtsa
C/ Ortega y Gasset, 22, 5ª planta
28006 Madrid
Telefonoa: (34) 91 431 66 45
Faxa: (34) 91 575 57 28
Helbide elektronikoa: fogade@fgd.es
Webgunea: <http://www.fgd.es>

Erreklamazioa 2018ko abenduaren 31 baino lehen egiten bada, 20 egun balioduneko epean itzuliko dizkizu gordailuak, beranduenez (100.000 euroko muga dago, edo, beste dibisa batean izendatutako gordailuak badira, horren balioakidea, goian aipatutako truke-tasak aplikatuta); 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra arte egiten bada, 15 egun balioduneko epean; 2021eko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra arte bada, 10 egun baliodunekoan; eta 2023ko abenduaren 31tik aurrera, 7 egun baliodunekoan. Nolanahi ere, itzulketa atzeratu egin ahalko da 2606/1996 Errege Dekretuaren 9.1.a) artikulua hiru garren paragrafoan zehaztutako kasuetan.

2023ko abenduaren 31ra arte, Kreditu Entitateen Gordailuak Bermatzeko Funtsak ezingo balu itzuli beharreko zenbatekoa ordaindu 7 egun balioduneko epean, bizibiderako zenbateko egoki bat ordainduko die gordailugileei bere gordailu bermatuetatik, eskatu eta 5 egun balioduneko epean beranduenez. Itzuli beharrekotik kenduko da zenbatekoa. Aipatu epean ere itzuli ez bazaizu, gordailuak bermatzeko sistemarekin harremanetan jarri beharko duzu, litekeena baita itzulketa erreklamatzeko epea mugatua izatea. Informazio zehatzagorako, jo ezazu Kreditu Entitateen Gordailuak Bermatzeko Funtsaren webgunera: www.fgd.es

Bestelako informazio garrantzitsua:

Oro har, gordailuak bermatzeko sistemek estaltzen dituzte gordailugile xehekari eta enpresa guztiak. Gordailuak bermatzeko sistema erantzulearen webgunean kontsultatu daitezke gordailu jakin batzuei aplikatzen ahal zaizkien salbuespenak. Era berean, kreditu-entitateak esango dizu produktu jakin batzuk estalita dauden ala ez, halakorik eskatuz gero. Dena den, kontu-laburpenetan ere baieztatuko dizu kreditu-entitateak gordailuak estalita dauden ala ez.

Ondokoak Kreditu Entitateen Gordailuak Bermatzeko Funtsaren estalduratik kanpo daude:

a) Beste kreditu-entitate batzuek beren kontura eta izenean egindako gordailuak, baita

ondoko subjektu eta finantza-entitate hauek egindakoak ere:

1. Balore-sozietate eta -agentziak
2. Aseguru-entitateak
3. Balore-inbertsioko sozietateak
4. Inbertsio kolektiboko erakundeetako kudeaketa-sozietateak, pentsio-funts, titulizazio-funts eta arrisku-kapitaleko kudeaketa-sozietateak, baita kudeaketa-entitateetako gordailuak ere.
5. Zorroak kudeatzen dituzten sozietateak eta finantza-aholkularitza ematen duten sozietateak.
6. Arrisku-kapitaleko sozietateak eta dagozkien kudeaketa-sozietateak.
7. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 575/2013 zenbakiko Erregelamenduaren (EB) -2013ko ekainaren 26koa- 4.1.26) artikuluan definitutako beste edozein finantza-erakunde
 - b) Entitatearen fondo propioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 575/2013 zenbakiko Erregelamenduaren (EB) -2013ko ekainaren 26koa- 4.1.118 artikulua definizioaren arabera, fondo propio gisa neurtutako zenbatekoa edozein izanik ere.
 - c) Kreditu-entitateak jaulkitako zor-balio adierazgarriak, baita ordaindukoak eta efektu negoziagarriak ere.
 - d) Titularra identifikatuta ez dauden gordailuak, Kapitalak Zuritzea eta Terrorismoaren Finantzaketa Prebenitzeari buruzko apirilaren 28ko [10/2010 Legean](#) aurreikusitakoa betez, edo kapitalak zuritzeagatik zigor-epaia jaso duten eragiketetatik datozenak.
 - e) Administrazio Publikoek entitatean eraturako gordailuak, 500.000 euroko edo hortik beherako urteko aurrekontua duten toki entitateek eraturako izan ezik.

Gordailugileak gure entitateari zordundutakoa ez da kontuan hartuko itzuli beharrekoa kalkulatzeko, salbu eta zordundutakoa itzul dezala exijitzeko eguna 2606/1996 Errege Dekretuaren 8.1 artikuluan jasotako gertaerak jazotzen diren egun bera edo aurrekoa bada.